

Amatiñoren gehiegikeriak

Miren Azkarate
Badiola

Altsasuko auziari buruz asko hitz egin eta idatzi da azken aste hauetan, batez ere epaiketari hasiera eman zaion honetan. Ez dut ezer berria esango gertaera hau Euskal Herrian bakarrik eman daitekeela baieztatzen dudanean; taberna batean gertatutako liskar batengatik 300 urtetik gorako espetxe zigorrak eskatzea eta terrorismo ekintza bat bezala epaitzea.

Baina bereziki eskandalu bat iruditu zaizkidan deklarazioak Luis Aranberri Mendizabal *Amatiño*-k aste honetan

egindakoak dira. Beste perla batzuen artean, hauxe esaldia: «Proporzionaltasun bila, nik pare bat hilabetez sartuko nituzke, baina ez kartzelan, guardia zibilen kuarteletan baizik. Eta ez ego-nean egoteko, oheak egin, platerak garbitu eta erratza pasatzeko baino ez. Ea behingoz gizarteratzen diren».

Alde guztietatik iruditzen zait eskandalu bat. Batetik, gizon honek oso ondo daki zer gertatu zaien guardia zibilen etxeetan herri honetako ehunka gazte eta ez hain gazteri, eta, beraz, gizarteratzeko funtzioa Guardia Zibilaren es-

ku uztea iraingarri bezain probokatzaileria iruditzen zait. Bestetik, gizon hau ez nuen ahotsa altxatzen ikusi lau militarrek LGTBI kolektiboko kide bati sekulako jipoia eman ziotenean, ez eta EHGA Men egoitzaren bat garbitzeko proposatzen ere. Eta azkenik, gizon honek gazteentzako zigorra garbiketarekin lotzea lotsagarria iruditzen zait. Zer da, garbiketa zerbait umiliagarria? Ala gazteak umiliatuak izatea da zure nahia? Amatiño, pentsatzen nabil zein lan gomendatuko nizukeen zuri dentistarenean. •

Sinbologiaz

Antton Izagirre

Sinbolismoz beteriko garaiak bizi ditugu. Kontu berria ez izan arren, inoiz baino kontzientea-goak gara sinboloen atzean ezkutatzen den ingurumaria soziopolitikoaz.

Komunikazioaren munduan bizi gara, iruditegi oso zabala dugu. Komunikabideetatik jasotzen ditugun irudi eta mezuez baldintzaturik bizi garen sentsazioa dugu. Politika, ekonomia, gizarte manipulazioa, zeharkako sinboloen bidez eragiten dela agerikoa da. Egunerokotasunean hain barnera-

tua ditugun medioek ia oharkabean gidatzen dute gure jarduna, gure pentsaera eta jokamoldea. Hori guztia inkontzientea den neurrian, gizartea moldatzeko duten indarra paregabea izan ohi da.

Baina komunikazio bide guztien artean, gizakion gorputza eta larrua birtarteko egiten dena oso indartsua da. Gure gorputza estaltzeko erabiltzen ditugun jantziak, buruko zapiak, larrua apaintzeko tatuajeak, piercingak, orrazkerak, margoak... garaian garaiko testuinguru soziopolitikoaren sinbolo

dira. Zenbateraino dira askatasun ala menpekotasun ikur?

Irakurri berri dut Opus Dei elkarteak zuzentasunez jantzita ez ibiltzea bekatutzat hartua izan dadin aholkatu omen duela, «janzkerak nortasuna biltzen duelako». Gorputzaren gaineko sinbologiaz egiten den erabilpen horrek gizakiaren eta gizartearen kontrola duela helburu. Halakoetan, interpretazioak egiteko orduan, beti galdetu beharko dugu gaiaren sustatzaileak duen ideologiaz eta horren baitan egin geure hautua. •